

HITZAURREA

«Euskal Zuzenbide Zibil konparatuari buruzko azterketak» seriearen bigarren bilduma hau aurkezteko zilegi bekigu Iura Vasconiae Fundazioak eta UEUK elkar lanean abiatutako ekimena aipatzea. Izan ere, Euskal lurraldeen Zuzenbide Zibila oro har eta atalka aztertzeko egitasmoa paratu baikenuen elkarrekin duela hiru urte.

Euskal Herrietako erakunde juridiko pribatuen azterketa konparatua egiteko zioari jarraiki, 2017. urtean lehen ale bat kaleratu genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, zeinak aztertu zituen EAEko 5/2015 Legearen berrikuntza nagusiak. Bigarren ale honetan biltzen ditugu hurrengo bi Jardunaldien emaitzak. Euskal Zuzenbide Zibilean egitatezko bikoteen eta umeen zaintzaren azterketa, batetik, eta bestetik Jabetza berdearen titulartasunari, alegia, «komunalari» buruzko gogoetak.

Lehen atalari buruz, jakina da «Euskal Herrian, *familia* eremuari» dago-kionez, lege bereziak aldarrikatu dituela legegile autonomikoak Nafarroan eta Euskal Erkidego Autonomikoan, dela ezkondu gabeko bikoteen, dela umeen zaintza edo jagoletzaren gaineko auziak konpontzeko. Lau lege, horietako batzuk Konstituzio Auzitegiak inausiak, gure egungo familien ohiturak eta operadore juridikoen portaerak moldatzen ari direnak.

Irakurleak esku artean duen ale honetan, bada, familia zuzenbideko lege autonomiko horien edukia azterteaz gain, bien arteko alderaketa bat ere burutu dute adituek; izan ere, lege horiek materia berdinez jarduten badute ere, euren aukerak arras desberdinak baitira. Bikotekide, guraso eta seme-alaben interesak babestea dela helburu nagusi, eta horiek babesteko legeek ahalik eta erantzun osotuena izatea komeni dela.

Zein erantzun eman dio euskal gizarteak araudia berriari? Erregulazio aukera desberdin hauen aurrean gizarteak emandako erantzunez aritu dira, agerian utziz zeintzuk diren materia honetan errealitatean dauden beharrak, eta zein arloetan egiten duten legeek huts.

Bigarren atalari gagozkiola, agerikoa da, **gure lurralde gehiena «landa-eremuak» osatzen duela**. Ereku horretako lurrez arduratzeko bada **baliabide juridiko oinarritzko** bat: titulartasuna norbaiti ematea; eta **kudeatzeko eraentza juridiko desberdinak**: jabetza pribatua, jabetza publikoa, komunalak, egitura tradizionalak. Begirada honetan erabili diren ikuspegiak izan dira partikularren interes pribatua, gizartearen interes publikoa eta, kokagune dugun lurraldea

kontuan hartuz, euskal zuzenbidea. Hiru begi horiekin miatu dute adituek arloa, non eta iraganean bizitako esperientziatik abiatu, egun bizi diren arazo nagusienak topatu eta etorkizunerako proposatu daitezkeen baliabide juridikoak arakatzeko ahalegina aitortu behar zaien.

Azterketa honek, ezinbestean, garrantzia izan dezan nahi genuke legedien proiektio sozialera begira; batez ere kontuan izanda jorratzen dituzten gaiek ohiartzun handia dutela euskal gizartean.

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ
SANTIAGO GOÑI ZABALA
MIKEL MARI KARRERA EGIALDE